Administrazio Kontseiluak, 2026ko urriaren 19an egindako bilkuran besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

10.- 001-2026 espedientea. Garbitania zero zabor SM sozietate publikoarentzako datu-gobernantza, datu integrazio, prozesuen automatizazio eta kudeaketa-kontrolerako datuen egitura korporatiboa diseinu eta ezarpenerako aholkularitza eta gidaritza zerbitzuen kontrataziorako espedientearen onarpena.

Garbitaniak bere jarduera operatiboa, informazioaren kudeaketa eta erabaki-hartzea hobetzeko helburuarekin egingo duen aldaketa digitaleko prozesua zuzendu eta egikaritzea kontratatzeko espedientearen izapidetzeari ekin zaio. Espedientearen zenbakia 002-2026 da.

Ikusi dira espedientea osatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 116. artikuluan jasotzen direnak. Lege berean 117. artikuluan xedatutako kontuan izanda, aztertu da 2026ko urriaren 19an gerentziak emandako irizpena eta bertan azaldutako kontratazio beharrak.

Horiek horrela, hau **erabaki da** aho batez:

Lehena.- Onartzea Garbitaniaren digitalizazio prozesuaren zuzendaritza eta egikaritzea kontratatzeko prozedura ireki arruntaren bidez egikarituko den espedientea eta kontratu hori arautuko duten administrazio baldintza partikularren plegua eta baldintza teknikoen plegua.

Bigarrena.- Lizitazioaren gehienezko aurrekontua izango dena onartzea, hau da, 60.000€, gehi BEZari dagozkion 12.600€, guztira 72.600€.

Hirugarrena.- Lizitazio prozeduraren kontratazio mahaiaren osaketa onartzea. Osaketa hori ondorengoa izango da:

- **Lehendakaria:**
  - Titularra: Hernaniko Udaleko ingurumen zinegotzia.
- **Mahaikideak:**
  - Titularra: Usurbilgo Udaleko zerbitzu zinegotzia.
  - Titularra: Garbitania Zero Zabor S.M.ren finantza arduraduna.
  - Titularra: Garbitania Zero Zabor S.M.ren kudeatzailea.
- **Idazkaria:**
  - Titularra: Garbitania Zero Zabor S.M.ren zerbitzu juridikoen teknikaria (ahotsa bai, botorik ez).

Laugarrena.- Kontratu honen iragarkia Garbitaniako Kontratatzaile Profilean argitaratzea eta 15 egun naturaleko epea ematea proposamenak aurkezteko.

Hernanin, 2026ko urriaren 19an

Urko Lazkoz Fernandes

Idazkaria

URKO LAZKOZ FERNANDES - 44161269G

Firmado digitalmente por URKO LAZKOZ FERNANDES - 44161269G
Fecha: 2026.11.02 08:11:31 +01'00'